

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala****Udal-lokalak lagatzea, eremu publikoa okupatzeko baimenak ematea eta udal-materiala maileguan uztea arautzen duen Ordenantzaren behin betiko aldaketaren onarpena.**

Udal-lokalak lagatzea, eremu publikoa okupatzeko baimenak ematea eta udal-materiala maileguan uztea arautzen dituen ordenantzaren hasierako onarpenari buruzko erabakia jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren, inolako erreklamaziorik ez eta irado-kizunik ere ez zenez aurkeztu, aipatutako ordenantza behin betiko onartu zuen Udalbatzak 2020ko uztailaren 29ko Osoko Bilkuran, aipatutako Ordenantza jarraian jasotzen den moduan geratzen dela:

1. artikulua. — Helburua

— *Honako hau jartzen zuen tokian:*

Ordenantza honek honako honexetarako irizpideak eta prozedura orokorra zehaztea dauka helburu:

- a) Elkarteen Udal Erregistroan inskribatutako elkarteei udal-lokalak aldi baterako lagatzea eta erabilera hori arautzea.
- b) Eremu publikoa okupatzeko baimenak ematea.
- c) Elkarte, partikular eta erakunde eskatzaileei behar besteko materiala maileguan uztea eta mailegu hori arautzea.

Lokalaren erabilera hitzarmenean zehaztutako iraupenerako eta dohainik lagako da. Beraz, ez da inolaz ere edozein alderdiren aldeko eskubide ekonomikoa edo alokairu-eskubidea izango.

Erabilera-lagapenen bidez, gizarte-erakundeek behar den moduko lekua izango dute euren jarduerak garatzeko, betiere jarduera horiek gure bizilagunen mesederako, herri-onurarako edo gizartearen intereserako badira.

— *Orain, honako hau jarri:*

Interes sozialeko ekintza autogestionatuak bultzatu nahi dira, eta horretarako, udalaren titulartasuneko baliabideak lagako dira, bai eta udalaren titulartasunekoak ez diren arren, Udalak euren gainean eskubideren bat daukanean ere.

Orokorrean, udal-baliabideak doan lagako dira, beti ere dagokion Zerga Ordenantzan jasotako baldintzak ezarrita.

Ordenantzak ondoko egintzatan aintzat hartu beharreko irizpideak eta prozedurak ezartzen ditu:

- a) Udal-lokalak aldi baterako lagatzea:
Lokal bat laga ahal izango da akordioan jasotako iraupenaz, baina inolako eskubide ekonomikorik edota errentamendu eskubiderik sorrarazi gabe bi alderdiateko baten alde.
- b) Esparru publikoa okupatzeko baimenak ematea.
- c) Materiala mailegatzea eskatzen duten elkarteei, partikularrei eta entitateei, eta material hori mailegatzeo prozedura arautzea.

Udal-lokalen, esparru publikoen eta udal-materialaren lagapenak onartuko zaizkie euren ekintzak garatzeko eskatzen dituzten entitate desberdinei, helburu soziala dute-nean edota Urduñako herritarren onurarako direnean.



I. TITULUA

UDAL-LOKALEN LAGAPENA

2. artikulua. — Onuradunak

(...)

— *Honako hau jartzen zuen tokian:*

2.2. Urduñako Udalak ezin izango dizkie honako hauexei udal-titularitatepeko lokalak aldi baterako laga:

- a) Pertsonen duintasunaren edo berdintasunaren irizpideen aurkako jarduerak garatzen dituen edozein elkarte edo elkarketa.
- b) Euren enpresaren helbururako jarduerak garatzen dituzten enpresa pribatuak edo partikularrak, baita alderdi politikoak, sindikatuak, hautesleen elkarketak,... ere.
Nolanahi ere, b) idatz-zati honetan aipatutakoei unean uneko lagapena egin ahal izango zaie, euren helburuarekin lotutako jarduerak garatu ditzaten. Dena dela, lagapen horren iraupena hilean HIRU egunekoa izango da, gehienez ere.

Esleipenerako irizpideen artean, lekuaren erabileraren helburua hartuko da kontuan, baita honako hauxe ere: erabilera horren maiztasuna (egunean behin, astean behin, hamabost egunean behin...), zerbitzuko ustezko onuradunen kopurua, udalerrian finkatuta emandako urteak, udalerrian garatutako partaidetza aktiboa eta irizpide teknikoaren arabera beharrezkoak izan daitezkeen beste batzuk.

— *Orain, honako hau jarri*

2.2. Halaber, udal-lokalak laga ahal izango zaizkie enpresa pribatu edota partikularrei, euren helburu enpresarialetarako, beti ere udalak interesgarri baderitza garatzen duten jardueragatik eta horretarako baimena ematen badie. Lokalak lagatzeagatik tasa dagokion Zerga Ordenantza jasotakoa izango da.

2.3. Urduñako Udalak ezin izango dizkie bere titulartasuneko lokalak utzi ondokoei:

- a) Pertsonen duintasunerako edota berdintasunerako irizpideen aurkako jarduerak garatzen dituzten elkarteak.
- b) Alderdi politikoak, sindikatuak, taldeak.

Hala ere, b) atalekoei noizean behin lokalak laga ahal izango zaizkie euren jarduerari lotutako ekintzak garatzeko, beti ere lagapena hilean HIRU egunetakoa baino luzeagoa ez bada.

5. artikulua. — Lagapena

— *Honako hau jartzen zuen tokian:*

- a) Kasuan kasuko sailak eskabide bakoitza aztertuko du, eta, ekipamenduen erabilgarritasunaren arabera, horri buruzko txostena egin beharko du. Era berean, horren inguruko proposamena ere aurkeztu beharko du, organo eskudunak onartu dezan.
- b) Erabilera lagatzeko erabakian berariaz adierazi beharko da zein den ondasunen helburu zehatza. Horrez gain, behar besteko baldintzak, mugak eta bermeak zein diren ere adierazi beharko da bertan, eta, bete ezean, erabilera itzuli beharko da. Oro har, urtebeterako lagako da erabilera, eta, gehienez ere, 5 urtera arteko berariazko luzapenak egin ahal izango dira, printzipala eta luzapenak kontuan hartuta. Epealdi hori igarotakoan, eskabide berria aurkeztu beharko da.

— *Orain, honako hau jarri:*

- a) Dagokion arloak eskaera bakoitza aztertuko du, eta ekipamenduen erabilgarritasunaren arabera, proposamena jasotzen duen txosten bat egingo du, dagokion organoak onartu beharko duena.

Jasotako eskabide guztien artean, lehenetasuna emango zaie Ordenantza hone-tako I. tituluko 2.1 artikuluan jasotako onuradunei.



- b) Lagapenerako akordioan ondasunak lagatzearen helburuak adierazi beharko dira, eta bete beharreko baldintzak, mugak eta bermeak ere. Azken horiek ez betetzekotan, lagapenaren berrikuspena egingo da.

9. artikulua.— Ordutegiak

— *Honako hau jartzen zuen tokian:*

- a) Banakako erabilera:

Banakako erabilerako lokal baten onuradunek libreki finkatu ahal izango dute irekitzeko eta ixteko ordutegia, betiere honako ordutegi honetara egokituta:

— Irekiera: 9:00etan.

— Itxiera:

- Igandetik ostiralera: 22:00etan.
- Larunbatetan, 24:00etan.

— *Orain, honako hau jarri:*

(...)

— Irekiera:

- FPKO eraikina: 8:00etan.
- Alondegia: Goizean 10:00etan eta arratsaldean 16:30etan.

— Itxiera:

- FPKO eraikina: Igandetik ostiralera 22:00etan eta larunbatetan 24:00etan.
- Alondegia: Goizean 13:30etan eta arratsaldean 20:30etan.

III. TITULUA**MATERIALA MAILEGATZEA****1. artikulua.— Onuradunak**

- 2.1. Honako hauexek izan ahalko dira udal-materialaren lagapenen onuradunak:

— *Honako hau jartzen zuen tokian:*

- 2.1.5. Salbuespenez, udalerrri honetan helbideratuta ez dauden enpresak, erakunde pribatuak, kultura eta kirol elkarteak eta pertsona fisikoak, betiere garatu beharreko ekitaldiaren interesaren arabera egokia bada eta, ekitaldia egin baino lehen, udalak behar besteko baimenik eman badu.

— *Orain, honako hau jarri:*

- 2.1.5. Salbuespenez, udalerrikoak ez diren kultura eta kirol elkarteak eta pertsona fisikoak, baldin eta udalak proposatzen duten jarduerari interesgarri baderitzo eta dagokion alde zurretiko baimena ematen badu.

— *Ondokoa atxiki behar da:*

- 2.1.6. Enpresak, entitate pribatuak edota partikularrak, euren helburu enpresarialetarako, beti ere proposatzen duten jarduera interesgarri jotzen bada eta Udalak dagokion alde zurretiko baimena ematen badu.

Materialaren lagapena artikulua honetan jasotako onuradunen lehentasun hurrenkeraren arabera izapidetuko da.

Aipatutako Ordenantzaren aldaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasi eta hamabost (15) laneguneko epean sartuko da indarrean, Toki Araubideko Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 65.2 eta 70.2 artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta eta indarrean jarraituko da berau aldatu arte edo berariaz baliogabetu arte.

Urduña Hirian, 2020ko irailaren 16an.— Itziar Biguri Ugarte